



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN
ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2024ko uztailaren 11koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugaratean Forondako aireportutik igarotzen den Zalla ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua, Uraren Euskal Agentziak sustatua.

AURREKARIAK

2024ko martxoaren 11n, Uraren Euskal Agentziak ingurumen-organoari eskatu zion Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugaratean Forondako aireportutik igarotzen den Zalla ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari (aurrerantzean, proiektua) buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin zezan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoa betez.

Ingurumen-organoak abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68.1 artikuluan aipatzen den kontsulta-izapidea egin zuen eta horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Uraren Euskal Agentziari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, haren gainean interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismeneko dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da oinarriak ezartzea ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautzeko, eta ingurumena babesteko maila handia bermatzeko, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie arau horren II.D eranskinean zerrendatutako proiektu publikoei edo pribatuei. Ebazpen honen xede den proiektua II.D eranskinaren 7.g) epigrafean jasota dago: «Ibaiak bideratzea eta ibilguen ibilbidea aldatzea, egoera naturalean ubidea, gutxienez, 250 metro luze denean».

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin dezan, pertsona interesdunei eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren.

Azkenik, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu eta honako hauek guztiak ikusi dira: 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa,



Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Vitoria-Gasteizko (Araba) udal-mugartean Forondako aireportutik igarotzen den Zalla ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari (aurrerantzean, proiektua) buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak

Proiektuaren helburua da Forondako aireportuko instalazioak babestea Zalla ibaiaren 500 urteko errepikatze-denborako uraldiaren aurrean. Proiektuak 3,5 km inguruko luzera duen tarte bati eragiten dio, aireportura N-624tik sartzeko bidearen eta Zalla ibaiak A-3302 errepidearekin duen bidegurutzearan artean.

Forondako aireportuan Zalla ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektua Ebroko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (UAKP, 2. zikloa) neurrien programaren parte da. Plan hori urtarrilaren 17ko 26/2023 Errege Dekretuak onartu zuen.

Gaur egun, Zalla ibaia bi ertzetako lubeten bidez mugatuta dago proiektuaren xede den ibilgu osoan zehar. Lubeta horiek inguruko lurrekin eginda daude, eta ez daude behar bezala babestuta; ondorioz, hautsi egiten dira intentsitate ertaineko emariak daudenean (15/20 urteko errepikatze-denbora). Era berean, defentsa horiek eragotzi egiten dute lurrazaleko alboko jariatze-urak ibilgura sartzeara.

Proiektuan babes-lubeta bat egitea aurreikusten da Zalla ibaiaren ezker aldean. Lubeta ibilguaren ardatzetik 80 metrora dago, gutxi gorabehera, eta lursailen gainetik 2,60 metroko altuera du batez beste. Lubetaren luzera, guztira, 3.430 m-koa da, eta dimentsio trapezoidala du, gaina 5 m-tik gora duena (mantentze- eta kontserbazio-lanetan bi ibilgailu gurutzatu ahal izan daitezela) eta 2H:1V ezpondak, zeinak bi azalera landu eta mantentzeko aukera ematen baitu.

Ibaiaren ezker aldean, lubeta berria eraikiko den lekuan, jariatze-emariak ibaira sartzeko hodiak eta atzera ezinezko sistemak daude (klapeta-balbulak), ibaiaren sekzio nagusitik ez daitezela uraldietako emariak irten. Horrez gain, ibilguaren azken zatian, ezker aldean dagoen lurrezko kordoi bat kentzea aurreikusten da.

Lubeta eratzeko, mailegatutako 67.635 m³ material behar da, obratik bertatik, harrobitik edo beste obra batzuetako soberakinetatik aterako dena (38.863 m³ material buztintsu nukleoa eratzeko, 21.108 m³ euste-hormak eratzeko; eta 7.664 m³ barruko euste-horman material iragazlezko betelanaerarako).

Organo substantiboak emandako informazioaren arabera, lur-hondeaketaren bolumena 24.133,20 m³-koa da, eta ziur aski lubetaren oinarriaren saneamendurako izango da. Horietatik, 2.760,70 m³ balioztatu dira; beraz, ezabatu nahi den soberakin-bolumena 21.372,50 m³-koa da.

Bestalde, 5.109,70 m³ zabor-legar artifizial behar da (harrobikoa) zerbitzu- eta mantentze-bideak egiteko, eta 2.796,70 m³ landare-lurra estaltzeko (obrakoak), lubetaren ibaiaren aldeko ezponda babeste aldera.

Zalla ibaiaren eta babes-lubetaren artean dagoen laborantzako lurrak eta ibai-parkearen eremua leheneratuko dira; horretarako, zonako landaredi potentzialeko espezieak landatuko dira.

Alternatiba horrek behar bezala funtziona dezan, beharrezkoa da A-3302 errepidearen sestra igotzea eta errepide horretan Zalla ibaiaren gainetik igarotzen den zubia ordeztzea. Jarduketa horiek ez dira proiektuaren parte, Arabako Foru Aldundiak sustatutako beste proiektu baten parte baizik, A-3302 errepidea hobetzean eta handitzean datzana.

Alternatiben azterketa

Hasierako dokumentuak hiru alternatiba aztertzen ditu, 0 alternatiba edo jarduketarik gabekoa barne. 0 alternatiba guztiz baztertu da, izan ere, ez ditu konpontzen aireportuko instalazioek Zalla ibaiaren 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen ondorioz izaten dituzten arazoak.

1. alternatiba ibaiarekiko paraleloak diren luzetarako bi lubeta egitean datza, bi ertzetan, ibilguaren ardatzetik 21 eta 26 metro ingurura. Lubeta bikoitza 3.740 m luze da: Zalla ibaiaren meandroetan hasten da, Forondako hirigunetik ibaian behera, eta A-3308 errepidetik ibaian behera amaitzen da.

Horrela, egungo ibilguak gainezka egingo balu, ura lubeta berri horietan geratuko litzateke eta inguruko lursailak urpean geratzea saihestuko litzateke. Konponbide horrek, isurketa-emariak ibaira joan daitezen, ibaira bideratutako hoditeria jartzera behartzen du, bai eta atzera ezineko sistemak edukitzera ere (klapeta-balbula motakoak), ibaiaren beraren sekzio nagusiko emariak ez daitezen bertatik irten. Konponbide horren barruan sartzen da ibilguaren eta lubeten arteko eremua leheneratzea ere, 4,35 ha-ko azalera batean.

2. alternatiba, azkenean hautatutako irtenbidea, ezker aldean babes-lubeta bat egitean datza.

Bi alternatibek ibilguaren azken zatian ezker aldean dagoen lurrezko kordoi bat kentzea aurreikusten dute. Jarduketa hori positibotzat hartzen da, ezker aldeko uholde-lautadaren eta Zalla ibaiaren ubidearen arteko zeharkako lotura berreskuratzen duelako.

Bi alternatibei lotutako inpaktuak aztertu ondoren, 1. alternatiba ezetsi da. Hauek dira (2. alternatibaren aldean) bere eragozpen nagusiak:

- Aldaketa morfologiko gehiago eta espazio-okupazio handiagoa behar ditu.
- Areago hesten du Zalla ibaiaren egungo ibilgua, lubeten eta ibilguaren artean leku gutxiago uzten duelako ibai-dinamikak garatzeko.
- Eragin handiagoa du landaredian eta, bereziki, ingurumen-balio handieneko landarediaren gainean, hala nola lizardi/zumardien eta lertxundi-haltzadi mediterraneoen edo trantsiziokoek gainean.
- Ingurumena leheneratzeko egokiak diren espazio libre gutxiago sortzen ditu.
- Faunaren gaineko eragina handiagoa da, ibilguaren bi ertzetan jarduten baita.
- Balio agrologiko handiko lurzoruen azalera handiagoari eragiten dio.

Proiektuaren eremua Vitoria-Gasteizko aireportuaren ondoan dago, hego-ekialdean. Iparraldean, Gereñako herrigunea dago, eta, ekialdean, Andetxa/Antezanako herrigunea.

Zalla ibaia kanalizatuta dago Foronda herritik A-3302 errepidearen bidegurutzera. Zalla ibaiaren ubideratzea Forondako aireportua eraikitzeke obrak egin ahal izateko egin zen. Jatorrizko ibilguaren zati bat aireportuko instalazioek hartu zuten, eta eraikitako ubide berria lubeta bidez babestu zuten bi ertzetan. Lubeta horiek ibaian gora eta ibaian behera luzatu ziren ubide naturalean zehar, modu etenean bada ere.

Ibaiaren antzinako trazaduraren zati txiki bat bakarrik kontserbatu da; ibilgu nagusi artifizialaren ezker aldeko ibaiadar moduko bat da orain, emari oso urrikoa, urte osoan zehar lehorra egoten dena, prezipitazio ugarike une jakin batzuetan izan ezik, horietan emari apur bat izaten duelako. Zalla ibaia Zadorra ibaira isurtzen da, proiektuaren eremutik 2 km ingurura ibaian behera, hain zuzen.

Eremu horretan ez dago naturagune babesturik, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari Gidalerroetan sartutako beste naturagune edo espazio interesgarrikerik ere. Halaber, ez dago EAEko korridore ekologikoen sareko elementurik, ez eta Arabako korridore ekologikoen sarekerik ere.

Aztergai dugun eremuko landaredi nagusian zerealen, pataten eta erremolatxen monolabore intentsiboak dira nagusi. Laborantza eremu horiek lugorriak eta larreak dira, eta txandakatuta daude. Hori labore-lurrak bertan behera uzteagatik gertatu da.

Zalla ibaiaren ibilguan, Mediterraneoko edo trantsizioko lertxundi-haltzadi motako ibaiertzeko landaredia duten eremuak eta sahastiak dira nagusi. Haltzadiak dagokienez, gaur egun, landatutako makalekin nahasita daude, eta, ondorioz, makalak han eta hemen sakabanatuta daude.

Urarekin lotuta, Zalla ibaiaren ibilgu zaharrea ibaiertzeko landaredia dago, aireportutik gertu; lizardiak eta sahastiak daude, bai eta haltzadiak ere. Gainera, istildutako eremuetan egoera txarrean dauden lezkadi txiki batzuk daude.

Eremu horretan dauden beste landaredi-estratu batzuk, neurri txikiagoan bada ere, landaredi erruderal nitrofiloa eta larreak dira, bai eta basoak ere, batez ere aireportuaren mendebaldean eta ekialdean, zeinak

koniferoen birpopulaketez osatuta baitaude. Atlantiko Azpiko haritz eutrofoek osatutako azalera txiki bat ere hauteman da eskuinaldean, Gereñatik gertu.

Flora babestuari dagokionez, Geoeuskadiren arabera, *Berula erecta* espezie mehatxatua berreskuratzeko eremu bat dago. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera, «galzoriko» espeziea da.

Proiektuaren ingurunean, Batasunaren intereseko honako habitat hauek hauteman dira:

- 91E0*: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak.
- 6210*: Belardi erdinatural lehorrak eta kare-substratuetako sastrakadi-faziesak (orkidea bikainak dituzten lekuak).
- 9160: Harizti pedunkulatuak edo Altantiko azpiko eta Europa erdialdeko kandugabeak.

Zalla ibaiaren ibilgua Arabako «Uhalde-enara (*Riparia riparia*)» Kudeaketa Planaren barruan dago (22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, *Riparia riparia* «Uhalde Enara» hegazia Kudeatzeko Plana onartzen duena), espezie mehatxatu gisa, eta hura babesteko berariazko neurriak hartu behar dira.

Inguruneari lotutako beste alderdi garrantzitsu batzuk honako hauek dira:

- Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak balio estrategiko handiko lurzoru gisa kategorizatutako lurren presentzia.
- Ez da hauteman I. eta II. taldeetako hezegunerik. Jarduketa-eremutik hurbil III. taldeko hezegune batzuk hauteman dira: Estarronako urmaelak (B9A11_01), Otazako urmaela (B9A10) eta Zallako urtegia Forondan (B10A7).
- Akuiferoen kutsadura-arriskua handia da.
- Ez da interes geologikoko gunerik edo punturik hauteman.
- Jarduketa-eremutik gertu kultura-ondareko hainbat elementu daude. Jarduketa-eremutik gertuen dagoena A-3302 errepidearen gainean dagoen zubia da, «Zadorra ibaiaren arroko zubiak» monumentu-multzoaren barruan dagoena (222/2017 Dekretuak, irailaren 19koak, monumentu-multzo kategoriarekin Kultura Ondasun Kalifikatu deklaratu zituen).
- Aztertzen ari garen eremua ez dago jasota EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan, baina azterketa-eremuan Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta dagoen paisaia bikain bat dago. Zadorra ibaiaren erdiko ibilgua da.
- Jarduketa-eremuan ez da hauteman kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruak dituen eremurik.

Proiektuaren inpaktu nagusiak obra fasean gertatuko dira, eta lurzoruaren okupazioarekin eta landare-estalkia kentzearekin lotuta daude, bai eta lubeta egiteko behar diren lur-mugimenduekin ere, lurraren morfologian aldaketak eragingo baitituzte.

Proiektuak ez dio zuzenean eragiten natura-ondareko ezein gune babesturi, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeari jarraikiz. Era berean, ez die zuzenean eragiten EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako azpiegitura berdearen sarean sartutako beste naturagune batzuei, ezta geologia interesdun lekuei ere.

Landarediaren gaineko inpaktu nagusia gaur egun dagoen lur-kordioa kentzeak eragin dezake, ibaiertzeko landarediaren eremuei eta *Berula erecta* espezieari eragiten dielako. Ingurumen-dokumentuaren arabera, Zallaren ibaiertzetan ez denez jarduketarik egin, intereseko landarediaren gaineko eragina txikia da.

Garrantzitsua izan daitezkeen beste inpaktu bat uhalde-enarak habiak egiteko erabil ditzakeen eremuei eragitea da, ibilguaren egungo lur-kordioa ezabatzean.

Obrek dirauten artean, beste efektu negatibo batzuk eragin daitezke, batez ere, azaleko uren kalitateari eragiteko arriskuagatik, lan-eremutik datozen jariatzeengatik, eta fauna-habitataren kalitatea aldatzeagatik, makinaren, langileen, zarata-emisioen, hautsaren eta atmosferako beste kutsatzaile batzuen presentziak eragindako eragozpenengatik. Hori dela eta, ingurumen-dokumentuak prebentzio-neurri batzuk ezartzen ditu, inpaktu horiek saihestu edo minimizatzeke.

Obrak amaitu ondoren, ekintza positibotzat jotzen da lur-kordioa kentzea, ibaiertzeko landarediaren azalera handitzen delako eta ezkeraldeko uholde-lautadaren eta Zalla ibaiaren ubidearen arteko zeharkako konektagarritasuna berreskuratzen delako.

Beste inpaktu posible bat balio estrategiko handiko lurzoruei eragitea da, baina modu positiboan baloratzen da ingurumena leheneratzeko lurzoru okupatzea, izan ere, flora eta fauna hartuko duten eremu berriak sortuko dituzten espazio berriak sortzen dira. Proposatutako jarduketak 25,85 ha-ko azalera bati eragiten dio; horietatik, 20,76 ha leheneratzeko dira.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabaltasuna, xehetasuna eta zehaztasuna

Ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituztenak.

Aurrekoari jarraituz, egiten diren apartatuek eskema metodologiko honi jarraitu behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra eta lurzoruak eta beste natura-baliabide batzuek etorkizunean izango duten erabileraren aurreikuspena. Lur-mugimenduen, sortuko diren hondakin eta isuri moten eta kopuruen eta horien ondoriozko materia- edo energia-emisioen balioespena.
2. Aztertutako alternatiba nagusiak azaltzea, zero alternatiba barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuak eragindako ingurumen-ondorioak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa egitea eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenak deskribatzea.
4. Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua egikaritu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.

Proiektuaren ondorioz gainazaleko ur-masa batean aldaketa hidromorfologikoa edo lurpeko ur-masa baten maila-aldaketa gertatzen bada epe luzera, eta horrek haren egoera edo ahalmena ona izatea eragozteko edo hondatzeko arriskua badakar, apartatu espezifiko bat gehituko da, eragindako ur-masen egoera edo ahalmena definitzen duten kalitate-elementuetan epe luzera izango dituen ondorioak ebaluatzeko.

5. Proiektuaren kalteberatasuna. Istripu larri edo hondamendi handiren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kalte nabarmenen deskribapena, kasuan kasuko proiektuari dagokiona.
6. Ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko neurriak.
7. Ingurumena zaintzeko programa.
8. Azterketaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Beharrezkoa bada, azterketa egitean izandako zailtasun tekniko eta informatiboen berri emango da.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten dira ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa egiteko baldintzak.

Proposatzen diren jarduketan eta ziurrenik kalteak jasango dituen ingurunearen ezaugarriak direla eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako apartatuak garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin.

2.1. Proiektuaren eta horrekin lotutako ekintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren azterketak barne hartu behar du esku-hartzearekin lotuta dagoen jarduera multzoaren deskribapen xehea, eta kontuan hartu okupatu edo aldatuko diren azalera guztiak; bereziki, inguruneke ingurumen-baldintzei nabarmen eragin diezaieketen ekintzak identifikatu behar ditu, zehatz aztertuta instalazioa egiteko fasea, obraren funtzionamendu fasea. Halaber, sortuko diren isuriak, materiaren edo energiaren emisioak eta hondakin motak eta kopuruak zenbatetsi behar dira.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteak proiektuak proposatutako jardueratik beretik edota berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik datoz, bereziki, honako hauetatik: sarbideak egokitzetik, obrarako instalazio osagarriak ezarri eta erabiltzetik, eta materialak eta makinak metatzetik.

Jarduketa guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeak ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatuta.

Hala, erabat definituta geratu behar dute gai hauek:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa. Proiektuko ekintza guztiek hartzen dituzten azalera, aldi baterako eta behin betiko okupazio-eremuak berezita.
- Egungo egoeraren deskribapena.
- Jarduketan eta aurreikusitako obren deskribapena. Proposatutako esku-hartze bakoitzaren eta horien eraginpeko azalaren deskribapen zehatza; oinplano-trazadura, luzetarako eta zeharkako profilak eta proiektatutako lubeten sekzio motak.
- Obra faserako aurreikusitako eraikuntza-teknikak, egungo lur-kordioa kentzea aurreikusi den tartetan ibaiari kalterik ez eragiteko.
- Lur-mugimenduak: lur-mugimenduak egiteko lanen deskribapena, egiteko modua eta materiala baztertzeko eta bitarteko metatzerako aurreikuspenak.
- Lur-mugimenduen balantzea egitea, eta obra-inguruetik kanpo kudeatu beharreko indusketa-lanen soberakinak zenbatzea, hala badagokio. Soberakinak garraiatzeko aukeratu diren ibilbideak, lurra biltegitatzeko garraioek sorrarazten dituzten ondorioak aztertuta.

Soberakin berriak biltegitatu beharra aurreikusten bada, kontuan hartu beharko da horretarako proiektuak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak agindutakoaren arabera egin behar direla (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena), eta, beraz, dekretu horren 26. artikuluan zehazten diren ur-eta biodibertsitate-gaietan eskuduntza aitortzen zaien organoen txosten nahitaezko eta lotesleetatik eratorritako emaitza, baldintza eta neurriak ere bildu behar direla haietan.

- Proiektuaren faseetan sortutako hondakinak eta horien azken helmuga, lur-mugimenduen soberakinak, eraispene-egiturenak eta abar barne. Obretan sor daitezkeen eraikuntza- eta eraispene-hondakinak kudeatzeko, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan (eraikuntza- eta eraispene-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan (eraikuntza- eta eraispene-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) xedatutakoa beteko da.
- Obrarako instalazio osagarrien kokapena: makineria-parkeak, lurra eta obrarako materialak metatzeko guneak, hormigoi-makinak eta kamioien gurrupilak garbitzeko guneak, bulegoen eta langileen instalazioak eta abar.
- Ibilgurako sarbideen trazadura. Pista berriak edo sarbideak egokitzeko beharra, eta horien ezaugarriak.
- Aurreikusten den obra-iraunaldia eta obraren plana (haren faseetako bakoitzaren iraunaldia, halakorik balego).

Proiektua behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren xehetasun-planoak aurkeztuko dira, gutxienez honako hauek barne hartuta:

- Kokapen geografikoaren plano georreferentziaduna.

- Egin behar diren jarduketan oinplanoko planoak. Proposatutako jarduketek behar bezala zehaztuta eta bereizita egon behar dute.
- Planoak luzetarako eta zeharkako profilekin, eta proiektuak eragindako zatiko ibilguaren sekzio motak.
- Ibilguko sarbideen trazaduren planoak, egokitu behar diren bide-zatiak identifikatuta.
- Obrako instalazio osagarrien kokapen-planoak.

2.2. Aztertutako alternatibak azaltzea eta egin den hautua justifikatzea

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketan, irizpide anitzeko azterketa bat sartu behar da, proposatutako proiekturako teknikoki bideragarriak diren alternatibei buruz; ingurumenaren aldetik egokienak eta proiekturako garrantzitsuak diren alternatibei buruz (zero aukera edo jarduketarik ez egitea barne), hain zuzen. Halaber, proposatutako konponbidearen justifikazio bat sartu behar da.

Alternatiben azterketa horretan, administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten fasean jasotako hainbat txostenetan agertzen den moduan, «Gasteizko aireportuko bide egituratzailea eta ondoko eremuak urbanizatzeko proiektua» alternatiba aztertu eta baloratuko da.

Alternatibarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-alorrek ere aintzat hartuta.

Alternatibak aztertzeke prozesuan, honako hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: ibilguari eragindako kaltea, landarediaren erasana, lur-mugimenduak eta lortu nahi den hobekuntza hidraulikoa.

Atala bukatzeko, hautatutako alternatiba argudiatu beharko da, eta, horretarako, bermatu beharko da hautatutako aukera bideragarria dela bai teknikoki bai ingurumenari dagokionez, eta ahalegina egingo dela ahalik eta eraginik txikiena izan dezan ingurumenaren osagaietan.

2.3.- Ingurumen-inbentarioa egitea eta interakzio ekologiko garrantzitsuenak deskribatzea

Atal honetan, eremua deskribatuko da, osagai baliotsuenak eta proiektuko ekintzen eragina gehien jasan dezaketenak nabarmenduta. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txostena ere sartu behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako alternatiba bakoitzaren kasuan.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, edo norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da. Saihestu egingo dira ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, eta kontuan hartuko da proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ulertzeko behar dena.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Geologia eta geomorfologia
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak.
 - Interes geologiko/geomorfologikoa duten leku, gune eta eremuen identifikazioa.
 - Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko guneak, karga-guneak, hustubideak eta abar identifikatzea, halakorik badago, eta gune de horien eta proiektuaren arteko erlazioa.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia

- Sare hidrografikoa proiektuaren eragin-eremuan. Proiektuak eragindako ibilguen eta haien ertzen egoera.
 - Akuiferoak eta interes hidrogeologikoko guneak kutsatzeko kalteberatasuna
 - Uren kalitatea. Proiektuak eragindako zatien egoera ekologikoa (biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa) zehaztea.
 - Eremuan dauden ur-puntuak. Horien ezaugarriak deskribatzea, erabilera adierazita, eta xehetasun-kartografian kokatzea.
- Eremu horretan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena
 - Apartatu honetan, ukitutako komunitateak identifikatu, eta honako hauek adieraziko dira: kontserbazio-maila; egiturazko konplexutasuna; espezie bereizgarri, enblematiko edo adierazgarriak, etab. Kontuan hartuko da, bereziki, ea espezie mehatxaturik dagoen eskualde, Espainia, Europa eta nazioarte mailan.
 - Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasunez zehaztuko ditu, azterketa zehatz baten bidez, proiektuaren jarduketek eragindako intereseko habitat bakoitzaren eta landare autoktonoen masen azalera, haien osaera, kontserbazio-egoera eta balio ekologikoa. Bereziki, proiektuaren kalteak jasan ditzakeen ibaiertzeko basoaren azalerari eta kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira.
 - Botanikako aditu batek proiektuaren eragin-eremuari buruzko prospekzio zehatzak egin beharko ditu, eta haren eginkizuna izango da proiektuaren eragin-eremuan dauden mehatxatutako flora-populazioak edo -leak non dauden identifikatzea eta xehetasunezko kartografian seinaleztatzea.
 - Halaber, landare-diaren azterketak jasoko du zein balizko landare-espezie aloktono inbaditzaile dauden eta zehazki non dauden.
 - Bertako faunari dagokionez, ingurumen-inpaktuaren azterketak, funtsean, xede izan behar du proiektuaren eragin-eremuan dauden edo egon daitezkeen fauna espezieen habitatak zaintzea eta lehengoratzea. Baloratu beharko du eremuan interesekoa den edo mehatxatuta dagoen faunarako intereseko eremurik badagoen (hazkuntza-eremuak, babeslekuak eta elikaduraguneak). Alde horretatik, faunaren diagnostikoa osatzeko, fauna-talde guztiak barne hartzen dituzten azterketak egin beharko dira, proiektuaren eremuan dauden espezieei eta espazioaren erabilerari buruzko informazio zehatza lortzeko. Mehatxu-maila dela eta, bereziki azpimarratu behar da uhalde-enararen habiak daudela kendu nahi den lur-kordioan, eta, beraz, espezie horren Kudeaketa Planak ezartzen dituen baldintzatzaileak kontuan hartu behar dira.

- Paisaia

Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da.

- Kultura-ondarea

Proiektuaren eragin-eremuan dauden interes kulturalako elementuak identifikatzeko, kontuan hartuko da Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak egindako txostena. Nolanahi ere, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoa beteko da.

- Dokumentazio grafikoa

Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografiko geoerreferentziatuak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

2.4.- Inpaktuak identifikatzea eta baloratzea

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioaren elementuen eta inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren mende dago. Kaltearen garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka eragingo dien baliabideen

kalitatea eta kantitatea. Obra faseko, funtzionamendu faseko eta eraispén faseko inpaktuak bereiziko dira.

Inpaktuak baloratzeko, proiektutik eratorritako jarduketa guztiak hartuko dira kontuan, hala nola, eta hala badagokio, soberako materialak soberakin-biltegiara eramateko trafikoa, sarbide iraunkorrak eta aldi baterakoak, instalazio osagarriak, lurren eta materialen aldi baterako metaketak eta abar.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako zenbatespen-prozesuak eta metodologiak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu horretan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak erabiliz.

Zehazki, bestelakoak eragotzi gabe, proiektuaren eta eraginpeko eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak bereziki azpimarratu beharko du Zalla ibaiaren afekzioarekin lotutako ingurumen-inpaktuen balorazioa eta natura-baliabideei eragindako ondorioak, landaredi natural autoktonoari eta faunari eragin dakizkiekeen ondorioengatik. Proiektuaren eraginpean dagoen landaredi mota bakoitzaren azalera kuantifikatuko da.

Obra fasean, bereizi egingo dira aldi baterako okupazioa eta iraunkorra. Batasunaren intereseko landarediaren eta habitaten gaineko inpaktua baloratzeko, eraginpeko azalera ez ezik, kontserbazio-egoera, adierazgarritasun-maila eta konektagarritasuna ere hartuko dira kontuan.

Obra fasean, gainera, hots-kutsadurak eta hondakinen, isurien eta emisioen kudeaketa egokiak eragin ditzaketen inpaktuak baloratuko dira.

Zentzu horretan, zaratari dagokionez, obren eragin akustikoaren balorazioa jasoko da. Horretarako, kontuan hartu beharko dira azaroaren 17ko Zaratari buruzko 37/2003 Legean zein urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, EAEn hots-kutsadurari buruzkoan, obretako zaratari buruzko xedapen espezifikoak. Aintzat hartu beharko dira obrako makineriaren potentzia akustikoa, zonakatzeko akustikoa eta gune bakoitzean kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak.

Baliabide estetiko-kulturaleri dagokionez, baloratuko da ea proposamena bateragarria den kultura-ondareko elementuekin.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak behar bezala baloratu behar dituen beste inpaktu batzuk dira, hain zuzen, obra fasean hurbil dauden habiak egiteko guneetan edo hegaztien umatzeko beste eremu batzuetan eragozpenak sortzearen ondoriozkoak, alderdi hori bereziki garrantzitsua baita arriskuan den fauna-espezie ororentzat.

Azkenik, Vitoria-Gasteizko Udalak egindako txostenaren arabera, eta ingurumen-araudian ezarritakoarekin bat etorritz, ingurumen-inpaktuaren azterketan, klima-aldaketa sartu behar da proiektuaren balizko ondorio nabarmenak identifikatzeko, deskribatzeko, aztertze eta kuantifikatzeko faktore gisa.

2.5. Proiektuaren kalteberatasuna

Istripu larriak edo hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuari buruzkoak ere. Helburu hori lortze aldera, proiektuari aplikatu beharreko arauak jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazioa erabili ahal izango da.

Horrelako ezbeharrek ingurumenean sortzen dituzten kalte nabarmenak prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurri guztiak bildu behar dira deskribapenean, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

2.6. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatzea

Ingurumen-inpaktuaren azterketan adierazi beharko da zer neurri aurreikusten diren aztertutako ingurunekeo elementu bakoitzak izango dituen ingurumen-ondorio negatibo nabarmenak murrizteko, desagerrarazteko edo konpentsatzeko.

Babes- eta zuzenketa-neurriak eta, beharrezkoa bada, konpentsazio-neurriak diseinatzeko, kontuan hartu behar dira proiektua gauzatzeko behar diren elementu eta jarduketa guztiak, eta bat etorri behar dute inpaktuekin; zehazki, proiektuak hartzen duen espazioko ingurumen-elementu eta -balioen gaineko ekintzek eragindakoekin.

Zehatz-mehatz identifikatu eta deskribatuko da inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko ekintza bakoitza. Deskribapenak xehetasun-maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatzeko, egikaritze-proiektuek izan ohi dituzten atalak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio teknikoaren agiria, baita hori guztia hobeto ulertzeko behar den kartografia ere. Neurriak obra-planean txertatuko dira, eta neurriak gauzatzeko egutegi koordinatu bat proposatuko da.

Zehazki, eta ezertan galarazi gabe aurreko ataletan eskatutako analisisen emaitzen ondorioz sartu beharko liratekeen beste neurri batzuk, prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurrien proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, besteak beste:

Natura-ondarea babesteko neurriak

- Proiektuaren diseinuarekin (lan-eremuak mugatzea, etab.) eta obren exekuzioarekin lotutako prebentzio-neurriak, hala nola obren eraginpeko eremua balizatzea, sarbide osagarriak, pilaketak eta abar barne, obra ez dadin balizatutako lurraldetik harago joan.
- Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen intereseko lekuak babestea.
- Obrak faunarentzako ugalketa-aldi kritikotik kanpo egitea, arriskuan diren espezieak detektatu diren eremuetan.
- Landaredia autoktonoa babesteko neurriak.
- Kendu beharreko zuhaitzak seinaleztatzeko aurreikuspena, ezinbesteko gutxienekoa izan dadin.
- Landaredi aloktono inbaditzailea desagerrarazteko neurriak.
- Prebentzio-neurriak (diseinukoak eta obretan kontuan hartzekoak) eta zuzenketa-neurriak, intereseko fauna-espezieei kalte ez egiteko. Uhalde-enarari dagokionez, adibidez, obren egutegia doitu (prebentzio-neurria) eta ibaiertzak lehengoratu (zuzenketa-neurria) beharko dira. Nolanahi ere, Arabako Foru Aldundiak, espezieen kudeaketaz eta uhalde-enararen kudeaketa-plana aplikatzeaz arduratzen den organoa den aldetik, beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak ezarri ahal izango ditu.

Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak

- Jarduketak egingo diren zatietan uren kutsadura minimizatzeko neurriak, hala nola solido esekien ekarpenak eta makineria-parkeen eta instalazio osagarrien gunetatik datozen beste kutsatzaile batzuen isuriak ekiditekoak.
- Metatze-guneak eta eremu osagarriak egoki kokatzea, zuzeneko nahiz jario bidezko kaltea ekiditeko.
- Makina-parkeak eta instalazio osagarriak egokitzeko neurriak (iragazgaitzea, drainatze-sarea, etab.).
- Obra-eremuetan, eta batez ere indusketa-lanetako materialekin kargatutako kamioiek ibili behar dutela aurreikusten den irteeretan, ibilgailuak garbitzeko instalazioak ipini beharko dira dekantazio-putzuetara konektatuta. Azterketak azaldu beharko ditu elementu horien ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurrien justifikazioa.

Ingurumena leheneratzeko eta paisaia txertatzeko neurriak

- Obrek aldi baterako eragindako gune guztietan ingurumena lehengoratzeko zuzenketa-neurriak.
- Fauna-habitata lehengoratzeko laguntzen duten ekintzak, ibilguaren ertzetan eragina duten tartetan.
- Landareztatze-proiektu bat idaztea, honako hauek barnean hartuko dituena:

- Gainazal edo eremu bakoitzeko lehengoratzeko prozesuetan erabili beharreko espezieak, landaketaren dentsitatea, aleen tamaina, ereintzen edo hidroereintzen konposizioa, neurketak eta proposatutako jarduketak gauzatzeko eta landatutako eremuen mantentze-lanak bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak.
- Landareztatze proposamena, gune bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Aurreikusitako mantentze-lanak: hutsarteak, ureztatzeak eta, hala badagokio, ongarriketak berritzea, besteak beste. Gomendatzen da mantentze-lan horiek obrak egin eta gutxienez 3 urtez luzatzea.
- Ibaiertzak landareztatze, zuhaitz- eta zuhaixka-espezie autoktonoak erabiliko dira, eremuaren naturalizazio eta funtzionaltasun ekologiko handiagoa lortzeko.
- Landaketa-prozesuan, flora aloktonoaren inbasio-prozesuak saihesteko neurriak barne hartuko dira, kontuan hartuz lur-mugimenduek landare mota horien zabalkundea erraztu dezaketela.
- Plano bat erantsiko da, proiektu-eskalan; bertan zehaztu eta irudikatuko dira landareztatuko diren eremuak, kasu bakoitzean aurreikusi den tratamendua adierazita (ereintzak, landaketak, etab.).

Zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ingurumena lehengoratzeko proiektu espezifiko batean bilduko dira. Proiektu hori uholdeetatik babesteko proiektuarekin lotuko da maila guztietan (aurrekontua barne), eta honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

Herritarrei eragindako kalteak eta eragozpenak murrizteko neurriak

- Atmosferaren kalitatea babesteko neurrien proposamena, obra fasean hautsa eta usainak aineratzea barne.
- Funtzionamendu-aldian zarata-mailak minimizatzea bideratutako neurrien proposamena.
- Obrak egin bitartean istripu larriak gertatzen direnean eta bertako biztanleei eragiten dienean jarduteko protokoloak.

Hondakinak kudeatzeko neurriak

Obra fasean zehar hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.

Kultura-ondarea babesteko neurriak

Museo eta Arkeologia Zerbitzuak egindako txostenean adierazitakoaren arabera. Arabako Foru Aldundiaren ingurumen-inpaktuaren azterketak inguruko kultura-ondareko elementuen babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu beharko ditu.

2.7. Ingurumena zaintzeko programa

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak beteko direla bermatuko duen sistema bat ezartzea izango da, bertan adierazitako jarraibideekin eta zuzenketa-neurriekin batera.

Programaren helburuak zehaztuko dira, eta, helburu bakoitzarentzat, bildu beharreko datuak, erabiliko den metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki kokatzeko egoera-planoa eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna ere adieraziko da.

Kalitate-helburuak legediak zehazten dituen muga-balioen edo balio-giden arabekoak izango dira, edota oro har onartutako azterketa teknikoaren arabekoak. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoak irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginen jarraipen egokia egin ahal izateko. Proiektuari eta proiektuak ingurunean duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolak gain, jarraian adieraziko diren kontrolak izan beharko ditu programak:

- Obrak okupatzen dituen mugak kontrolatzea.
- Obrek irauten duten bitartean ur-ibilguren eta uren kalitatearen gaineko kalteen kontrola.
- Landarediaren gaineko eraginaren kontrola.
- Mehatxatutako fauna-espezieen gaineko kalteen kontrola.
- Obrako jardunbide egokien kontrola, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, lurzorua edo uren kutsadura, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz, eta biztanleei eragozpenak sortzea zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz.
- Lur-mugimenduen eta indusketa-materialen kudeaketaren kontrola.
- Sortutako hondakinen kudeaketaren kontrola.
- Lehengoratzeko lanen kontrola.
- Aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko beste kontrol batzuk.

Kontrol-puntuak kartografikoki islatu beharko dira.

2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labor-labor eta edonork ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzen proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkitutako zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

2.9. Dokumentazio kartografikoa

Irudikapen kartografikoak lortu beharko dira, behar bezala georeferentziatuta (pdf-ek eremuaren koordinatuak jaso beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean). Proiektuaren eraginpeko azalera guztiak hartuko ditu eremu horrek, honako hauek barne: instalazio osagarriak, pilaketa-eremuak, obraren eremura sartzeko zein bide berri irekitzen diren eta, hala badagokio, soberakinen biltegiak non dauden.

Kartografia xehetasun nahikoaz egingo da, aurreikusten diren trazaduren, lursailen okupazioaren eta obra horietako bakoitzaren ezaugarri orokorren egokitasuna aztertu ahal izateko, ingurumenaren ikuspegitik.

Beharrezkoak diren xehetasun-planoak gehituko dira (adibidez, sarbideen xehetasuna, puntu kritikoetan edo ibilguen gaineko bidegurutzeetan), proiektua eta bere elementu bakoitzak sortuko dituen eraginak behar bezala aztertu ahal izateko.

Gainera, eta lan teknikoak errazteko asmoz, planoak shape formatuan aurkeztuko dira, eta obrako elementu nagusiak jasoko dituzte.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organoiari bidaliko dizkio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoak, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta jaso diren alegazio eta txostenen ingurumen-edukiari buruz sustatzaileak egin dituen oharren dokumentu bat, azaltzen duena nola hartu diren kontuan oharrok.

Dokumentazioa formatu digitalean eta xede horretarako egin diren jarraibideak betetz aurkeztu behar da. Jarraibideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), atal honetan: Arloak >

Ingurumen Ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura izapidetzea > Eskaerak aurkeztea.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak lau urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasteko.

Hirugarrena. Ebazpen honen edukia Uraren Euskal Agentziari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 11n.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Aitor Aldasoro Iturbe

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez)